

ASPALDIKO «FAKE NEWS»-AK

Interneteko berri faltsuen epidemiari
«Munduen gerra» irratsaio mitikotik so

 KOMUNIKAZIOA / Mikel Zubimendi Berastegi

Orson Welles handiaren «Munduen gerra» eleberriaren irratirako moldaketa, martetarren fikziozko inbasio baten berri ematen zuena, ez da «fake news» edo berri faltsuekin lotutako lehen gertaera. Baina masazko komunikabideen egunsentian gertatu zen eta adibide paradigmakoa izan zen: audientziaren zati batek dena zein erraz irensten duen frogatu zuen.

Ameriketako Estatu Batuetan, 1938ko urriaren 30ean, Halloween egunean, 23 urteko gazte bat guzti-guztien ahotan

zen. Orson Welles zuen grazia, artista handia zalantzarik gabe. Aurreko gauean, Halloween bezperan, Mercury Theatre on the Air bere taldearekin batera, H.G. Wells idazlearen “Munduen gerra” eleberriaren

Irudiko lehen orrialdeek erakusten duten bezala, egunkariak nahitara hauspotu zuten «Munduen gerra» irratsaioak eragindako histeria. Irratiaren arduragabekeria salatuta eta kazetaritza idatzia errespetagarriagoa zela saltzeko erabili zuten gertatutakoa.
GAUR8

moldaketa uhineratu zuen CBS irratian. Jada 40 urte zitueneleberri hura *fake news* edo berri faltsuen ikur bilakatu zuen: zuzeneko emanaldi baten bidez martetarren inbasio baten berri eman zuen. Inork eta ezerk ezin geldituta, New Yorkerantz gerturatzen ari ziren kreatura misterio-tsuen, gerrarako makina beldurgarrien berri eman zuen.

Honako mezu hau zabaldu zuen irrati bidez: «Jaun-andreok, eskaintzen ari garen musika programa eten beharrean gara Irrati Interkontinentalaren albistegi berezia zeuengantzeko. Chicagoko Mount Jennings astronomia behatxikiko Farrell irakasleak ezagutzera eman duenez, Marten, tarte erregularretan, gas gori baten leherketak ematen ari dira. Espektroskopioak adierazten duenez, gas hidrogenoa da eta ikaragarritzko abiaduran ari da Lurrerantz hurbiltzen. Princetoneko behatxikiko Person irakasleak ere baieztatu du Farrellen behaketa eta fenomeno ‘pistola batetik ateratzen den su urdinezko zurrusta’ bezala deskribatu du». Bada, programazioan egindako eten horrekin hasi zen benetako drama.

«OTOITZ, NEGAR, IHES»

Orduko egunkariet diotenaren arabera, AEBetako milaka eta milaka herritar, beldurrez akabatuta, «otoitz, negar eta ihes betean» jarri ziren irrati entzuterakoan. Irrati entzule askok albistegi berezia errealtatearekin nahastu zuten, eta, beldurak jota, poliziara, egunkarietara eta irrati kateetara deitzen hasi ziren. Zalantzarik ez dago egunkariok irakurrita: Welles gaztearen showak nazio mailako histeria sortu zuen. Hurrengo eguneko egunkariaren lehen orrialdeetan, Orson



Wellesek bere izena eta argazkia ikusi zituen. Ihesaldi masiboen, bere buruaz beste egin zuten herritarren, Orson Wells aurkitzen bazuten bi tiro emango ziotela esaten zuten entzule haserretuen lekukotzak... jasotzen zituzten egunkariak.

Sortu zen zalaparta itzelak eta egunkarien presioak bultzatuta, urgentziazko prentsurreko bat eman behar izan zuen Orson Welles. Kazetari denek, bakoitzak bere nabardurekin, galdera bera egin zioten: «Aurreikusita zuen entzuleak horrela izutzea?». Itzala bailitzan, bizitza osoan jarraitu zion galdera horrek Wellesi. Eta bere erantzunak aldatzen joan ziren: «guztiz errugabea» zela esaten zuen hasieran, eta, gero, kutsu burlatua, gertatu zena gertatuko zela «zehatz-mehatz» zekiela.

IRRATIA VS EGUNKARIA

Jakina, gaur egun badakigu istorioa saldu zigutena baino askoz ere konplikatuago dela. Egunkariak eman zituzten kopuruak erabat puztuta zeudela, benetan askoz entzule gutxiago ikaratu zirela. Ordutik egindako ikerketek benetan gertatu zena aztertzeke aukera ematen dute. 80 urte igaro izanak ematen duen perspektibak komunikabideetako dugun jarreraren inguruan hausnartzeko parada ere ematen du, bizitza publikoaren eta politikoaren arteko banaketaz.

Zergatik izan zen irratsaio soil baten aurrean taimainako erreakzio publikoa? Hein batean egunkariengatik, irratia

Nazio bat ikaratu zuen irratsaioa

1938an, mundua gerrarantz zabu-zabuka zihoala, Orson Welles izua zabaldu zuen AEBetan, irratiko zuzeneko saioan entzule oharkabeei “Munduen Gerra” eleberriaren moldaketa zitala ematean.



1898: H.G. Wells-en “Munduen Gerra” eleberriak Martetik etorritako inbaditzaileek Londresen aurka egindako erasoak kontatzen du.

1938: Orson Welles aktorearen irratsaioak literaturako klasikoaren berri ematen du uhinen bidez. Halloween-eko saiorako, zientzia fikziozko lan baten moldaketa egitea erabakitzen da.

1938/10/24, astelehena: Howard Koch gidolariari “Munduen Gerra” irratirako moldatzeko agindua ematen diote. Eta istorioa Londresen kokatu beharrean New Jerseyra ekartzen du.

1938/10/27, osteguna: Wellesek irratiko lankideei berri laburrak eta lekukoaren testigantzak sartzen hasteko eskatzen die, saioari larrialdi tonua emateko.

1938/10/28, ostirala: irratiko zuzendariek gidotia errealistegia dela diote eta gidolariari tonua baretzeko eskatzen diete.



Orson Welles, “nazio osoko irratiko mamu beldurgarriena”, “New York Sunday News”-eko argazki batean.

1938/10/29, larunbata: Entseguetan, soinu efektuetako taldea jendetzaren eszenako, kanoikadako eta Marteko gerra-makina kurrinkarien soinuak lantzen hasten da.

1938/10/30, arratsaldean: Musika entseguak. Orkestraren dantzarako piezak bertan behera uzten dituzte, albisteak emateko. Larrialdi tankera handitzeko, Debussy eta Chopinen pianoarako bakarkako piezak ematen dituzte, tonu makurragoa ematearren.

Arratsaldeko 6etan: Pertsonaien entseguak azken unean. Roosevelt AEBetako presidentearen papera jokatzeko agintzen diote Kenneth Delmar aktoreari.

1953an estreinatu zen “Munduen gerra” filmeko estralurtarraren irudia.


8etan: New Yorken irratsaioa zuzenean eman, eta ikaragarritzko izua zabaltzen da. Gerra lehertuko ote zen beldurra puri-purian zenez, estatubatuar askok nazien inbasioa hasi zela sinetsi zuten.

Irratiko show hauetan ordu erdiro tartea egin ohi zuten irratiko mezu eta iragarkietarako. **Zuzeneko albisteek ez zuten arau hori errespetatzen.** Saioaren hasieran albistea fikziozkoa zela zioen ohartarazpena entzuten ez zutenean, entzuleek zuzeneko berriak sinesten zituzten.



2018/10/31 astelehena: Wellesek entzuleak engainatu nahi zituela ukatzen du.

Irratsaioak Wellesi mundu mailako sona eman zion. Zinemako film gogoangarriak egiten lagundu zion horrek, hala nola “Citizen Kane” (1941) eta “Touch of Evil” (1958).





Jeniala eta profetikoa izan zen Orson Welles artista handiaren irudia.
GAUR8

etorrerarekin erreminduta, komunikabide berriaren izen ona zikintzeko aukera paregabea ikusi zutelako, irratiak ez omen zuelako idatzizko kazetaritza “errespetagarriak” zuen sinesgarritasunik. “The New York Daily” edo “Boston Globe” egunkarietako lerrobueren arabera, irratsaioak «nazio osoa ikaratu» zuen. Baina egiazki zenbat jende ikaratu zen? Eta zergatik?

Egin diren ikerketek argi adierazi dute aspaldiko *fake news* hark sortutako masazko ikara legenda bat besterik ez dela, ez zela histeriarik egon, han-hemenka azkar amatatu ziren sute txiki batzuk baino ez zirela egon. Egunkariak irratiaren arduragabekeria azpimarratu beharra zuten, “kultura modernoaren elementu arriskutsuenetariko” bat bezala karikaturizatu behar zuten, kazetaritza idatzia errespetagarriagoa zela saltzeko. Horre-

la, irrati lizentzien negozioan agindu zezaketen, bide batez irrati lokal pilo baten jabetza lortuz. Eta, hartara, ongi etorri zitzairen Wellesen irratsaioa.

XX. mendeko 30eko hamarkadari begiratuta, argi dago agintari eta diktadore orok ezagutzen zuela irratiak botea lortzeko edo mantentzeko zuen ahalmena. Naziek beraien *funkwarte* edo “irrati guardiaren” figura sortu zuten; etxez etxe joaten ziren herritarrek Hitlerren diskurtso garrantzitsuenak entzuten zizutela ziurtatzeko. Masazko histeria eta desilusioak antolatzeke Estatuaren tresna paregabekotzat hartzen zen irrati. Beldurak xaxatzeko, gorrotoak eragiteko, masak sutzeko tresna eraginkorra zen benetan. Eta horren erakusgarri ezin argiagoa Wellesek eman zuen bere showarekin.

Balio al du 1930eko hamarkadako irratiak esaten ari gare-

nak egungo Internetez jarduteko? Irratiaren inguruko borroka zaharrok uzten al duten leziorik Interneteko borroka berriei begira? Egia da orduko *fake news*-ak satirarekin zeudela lotuago nahita eraikitako engainuekin edo propagandarekin baino. Baina egia da ere egun gertatzen denak Wellesek bere irratsaioarekin ohartarazi nahi izan zuena baieztatzen duela. Bere irratsaioa beti izango da gogoangarria, eta ez soilik egun

Irratiarekin erreminduta, egunkariak hedabide berriaren izen ona zikintzeko aukera ikusi zuten. Idatzizko kazetaritza «errespetagarriak» zuen sinesgarritasunik ez omen zuen irratiak...

«Munduen gerrak» erakusten digu berri faltsuak aspaldikoak direla. Baina baita milioika hartzaileetatik gehienak gai direla fikzioa eta errealtatea ezberdintzeko

oraindik ere erabiltzen den berri “urgenteen” formatua hain dotoreki eta beldurgarriki erabiltzeagatik, baita honako mezu hau ere beti eramango duelako altzoan: kazetaritzaren konbentzioak gezur oso sinesgarriak eraikitzeke erabil daitezke.

Egun, politikariek, ikerlariek eta teknologia konpainiek epidemia “berri” batez ohartarazten gaituzte: *fake news* edo berri faltsuez. Komunikabide berriak komunikatzeko baino informazio gerrarako erabiltzen omen dira, Twitterreko mezuak 140 letrako tirosegida lez erabiltzen omen dira. Internetek ekarritako esperantza utopikoak beldur distopiko bilakatu omen dira, alegia. 1930eko hamarkadan irratiarekin gertatu zen bezala. Beste hitz batzuetan esanda, *fake news* izeneko birus batek informazioaren mundura anarkia totala ekarri omen du. “Munduen gerrak”, baina, erakusten digu berri faltsuok ez direla inolaz ere atzo goizekoak. Eta beren ugalketaren aurrean teknologia konpainiek eta komunikabideek ezin dutela ezikusiarena egin.

Erakusten digute, halaber, berri faltsuon aurrean dagoen kezka, maila batean, nahita puztuta dagoela. Egia da egun berriok ekoitzi eta zabaltzen diren eskala, testuinguru politikoa, lortzen diren etekin potentzialak... erabat ezberdinak direla. Baina, esaterako, Facebook berak aitortua du bere erabiltzaileen %18k soilik sinisten dituztela zabaltzen dituen berriak. Hau da, Wellesen irratsaioarekin gertatu bezala, berri faltsuek milioika hartzaile izan arren, gehienak gai dira fikzioa eta errealtatea ezberdintzeko.